A.T.V

V
12

H-9929
R-4362
A.T.V.
2812

CRISTINAUBAREN

# DOTRINIAREN ESPLICACINUA

EUSQUERAS

D. MARTIN DE ARZADUN,

**Durangoco uriço Eleissetaco Beneficiadu**

**ta Arimen jagoliac ipiniju.**

Orain euscaldun
gastechuben adisquide batec
barristauta eta cerbait gueituta emoten
dau arguitara aterateco.

---

OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vizcaya

**Biar dirian escubidiacaz.**

DURANGO:
Imprenta, Librería y Encuadernación de Florentino de Elosu
1895

## CREDUA.

Sinistuten dot Aita Jaungoico guztiaaldabenagan Cerubaren ta lurraren Eguilliagan, ta bere Seme bacar Jesucristo gure Jaunagan: cein sortuzan Espiritu-Santubaren obraz ta gracijaz: jaijo zan Marija virginiagandic padecidu eban Poncio Pilatosen aguindupeian, izan zan crucificaduba, illa ta enterraduba: jatsi zan infernubatera, ta irugarren egunian viztu zan illen artetic: igo eban Cerubetara, an dago jarriric Aita Jaungoico guztia aldabenaren alde escumacuan: andic etorrico da vicijac ta illac juzguetara. Sinistuten dot Espiritu-Santubagan, Ama Eleisa santa catoliquia, Santuben communinua, pecatuben parcacinua, araguijaren viztueria ta betico vicitzia. Amen.

## SALVIA.

Jaungoicuac gorde zaizala, Erreguina ta erruquitazunaren Ama, vicitza, gozotasun ta esperanza gueuria. Jaungoicuac gorde zaizala. Ceure deijez gagoz Evaren seme erbestequoc, ceugana gagoz cizpuruz ta negarrez, negarrezco erri onetan. Ea bada vitarteco gueuria, biurtu eguizuz guganá ceure begui erruquitzu orrec: ta erbeste au igaro ezquero eracutsi eguiguzu Jesus ceure sabeleco frutu bedeincatuba. ¡O Ama biguna! ¡O erruquitsuba! ¡O Marija virgina go-

zua, Jaungoicuaren Ama santia! Erregutu eguizu guguitic mereci daiguzan Cristoren promesac. Amen.

## AMAR MANDAMENTUBAC.

**Jaungoicuaren leguceo mandamentubac dira amar. Lenengo irurac jagocaz Jaungoicuaren onrriari: ta beste zazpirac progimuaren probechubari.**

Lenengua, Jaungoicua ametia gauza guztijen-ganian.
Bigarrena, juramentu alperric ez eguitia.
Irugarrena, domecac ta jaiyac gordetia.
Laugarrena, Aita ta Ama onretia.
Bostgarrena, ez iñor illtia.
Seigarrena, araguizeo pecaturic ez eguitia.
Zazpigarrena, ez iñori ecer ostutia.
Zortzigarrena, falso testimoninoric ez iñori ezartia, ta guzurric ez esatia.
Bederatzigarrena, iñoren senarric edo emazteric ez gura izatia.
Amargarrena, bestien ondasunic ez desietia.
Amar mandamentu onece sartuten dira bitan, Jaungoicua ametian gauza guztijen ganian ta progimua gueure buruba leguez. Amen.

## BOST MANDAMENTUBAC.

Ama Eleisa santiaren mandamentubac dira bost.

Lenengua, meza osua entzutia domequetan ta jaiyetan.

Bigarrena, confesetia guichienez urtian bein, edo lenago erijotzaco peligruric badago, edo comulgauco bada.

Irugarrena, comulguetia Pasco garizumacuetan.

Laugarrena, barau eguitia Ama Eleisa santiac aguinduten dabenian.

Bostgarrena, amarrenac ta primicijac paguetia.

## ZAZPI SACRAMENTUBAC.

Eleisa Ama santiaren Sacramentubac dira zazpi.

Lenengua, Bautismua.
Bigarrena, Confirmacinua.
Irugarrena, Penitencija.
Laugarrena, Comuninua.
Bostgarrena, Olíacinua.
Seigarrena, Ordia.
Zazpigarrena, Matrimoninua.

# FEDECO ARTICULUBAC.

**Fedeco articulubac dira amalau: lenengo zazpirac jagocaz Jaungoicotasunari, ta beste zazpirac Guizontasun santubari.**

*Jaungoicotasunari jagocazanac dira oneec.*

Lenengua, sinistu Jaungoico guztia aldaben bategan.
Bigarrena, sinistu dala Aita.
Irugarrena, sinistu dala Semia.
Laugarrena, sinistu dala Espiritu-Santuba.
Bostgarrena, sinistu dala Eguillia.
Seigarrena, sinistu dala Salbaguillia.
Zazpigarrena, sinistu dala Glorija emollia.

*Guizontasun santubari jagocazanac dira oneec.*

Lenengua, sinistu Jesu-Cristo gure Jauna guizon dan aldez sortu zala Espiritu-Santubaren obraz ta gracijaz.
Bigarrena, sinistu jayo zala Marija Virginiagandic, izanic au doncella, Semia jayo baño lenago, jayaqueran, ta jayo ezquero.
Irugarrena, sinistu artu ebala pasinua ta erijotzia gu pecatarijoc salbetiarren.
Laugarrena, sinistu jatsi zala infernubetara, ta atera cituzala bere etorrera san-

tubaren beguira egozan guraso santuben arimac.

Bostgarrena, sinistu viztu zala irugarren egunian illen artetic.

Seigarrena, sinistu igo ebala Cerubetara, ta an daguala jarriric Aita Jaungoico guztia aldabenaren alde escumacuan.

Zazpigarrena ,sinistu etorrico dala Juicijoco egunian vicijac ta illac juzguetara; emotera onai bere glorija gorde citubezalaco bere mandamentu santubac, ta gaistuai betico penia etzitubezalaco gorde. Amen.

## NI PECATARIJA.

Ni pecatarijau confesetan nayaco Jaungoico guztia aldabenari, Marija beti doncella garbijari, San Miguel Anguerti nagusijari, San Juan Bautistiari, San Pedro ta San Paulo apostolubai, Santu ta Santa guztijai ta ceuri Aita arimacua, cergaitic eguin neban pecatu pensamentuz, berbaz ta obraz, neure erruz, nuere erruz, nuere erru andiz: orregaitic escatuten deutsat Marija Beti doncella garbijari, San Miguel Angueru nagusijari, San Juan Bautistiari, San Pedro ta San Paulo apostulabai, Santu ta Santa guztijai ta ceuri Aita arimacua, erreguttu daguijozula nigatic gueure Jaun ta Jaungoicuari. Amen.

## ACTO CONTRICINOZCUA.

Neure Jesucristo Jauna, Jaungoico ta guizon eguijazcua, neure eguillia ta erredentoria, ceu zariana zarialaco, ta maite zaitudazalaco ganza guztien ganian, damudot vijotz guztitic zu ofendiduba: artzen dot gogo sendo bat ez gueijago pecaturic eguiteco, confesetaco ta emoten jatan penitencija cumplietaco, eta pecaturaco dirian ocasino guztijetatic apartetaco. Esquintzen deutsudaz, Jauna, neure vicitzia, obrac eta trabajubac neure pecatuben paguraco; eta erregututen deutzudan leguez, icharoten dot ceure erruquitazun andijan parcatuco deustazuzala, emongo deustazula ceure gracija onduteco neure vicitzia, ta irauteco zu servietan neure erijotzaco orduraño. Amen.

## Cristinaubaren señaliaren esplicacinua

*Itanduten dot:* Cristinauba zara?
*Erantzuten dot:* Bai, Jaungoicuaren gracijaz.
I. Nundic jatortzu cristinaubaren icenori?
E. Jesucristo gure Jauna-gandic.
I. Cer esan gura dau cristinaubac?
E. Jesucristoren fedia bautismuan artu eban guizona, ta vera servietan esquiniric daguana.
I. Cein da cristinaubaren señalia?
E. Curutze santia.
I. Cergaitic?
E. Cergaitic dan Cristo curutzian josiyaren irudija, ceinetan erosi guinduzan bere odol precijo baguiagaz.
I. Ceimbat modutara eguiten da señale au?
E. Modu bitara.
I. Ceintzuc dira?
E. Señatutia ta aitiaren eguitia.
I. Cer da señatutia?
E. Eguitia iru curutze escumaco atz orcoluagaz urrenguac artez daucazala.
I. Nun eguingo dira iru curutze oneec, ta ce berbagaz?
E. Lenengua becoquijan, bigarrena auan ta irugarrena bularrian esanagaz.—*Curutze santiaren † señaliagaitic, gueure † arerijuetatic, librau gaguizuz gueure Jauna † ta Jaungoicua.*

I. Cergaitic eguiten dira iru curutze oneec becoquijan; auan ta bularrian?

E. Becoquijan eguiten da gorde gaguizan Jangoicuac pensamentu deunguetatic, auan gorde gaguizan berba deunguetatic, ta bularrian gorde gaguizan obra deunguetatic.

I. Cer da Aitiaren eguitia?

E. Eguitia curutze bat escumaco bost atzaaz artez ipinita.

I. Nun eguingo da curutze au ta ce berbagaz?

E. Becoquitic bularrera, ta ezquerreco sorbaldatic escumacora esanagaz=*Aitiaren ta semiaren ta Espiritu-Santubaren icenian.* ✝ Amen.

I. Nos eguin biar da curutze santiaren señale au?

E. Obra onen bat asten doguenian, premiña, tentacino edo peligruren baten aurquituten garianian.

I. Nos gueijago?

E. Etsatera guazanian, oetic jaguiten garianian, echeco sartu urtenetan, jatera edo edatera guazanian, ta Eleisan sartu orduban.

I. Cergaitic aimbeste bider?

E. Cergaitic beti ta lecu guztijetan esesten deuscuben gueure arerijuac.

I. Ceintzuc dira arerijo oneec?

E. Demoniñua, Munduba ta Araguija.

I. Eta badauco curutziac indarric areriyo orren contra?

E. Bai Jauna.

I. Nundic dauco curutziac indar ori?

E. Cristoc anche bere erijotziagaz bencidutetic.

I. Eta celan adoretan da curutze santia?

E. Esanagaz: Adoretan ta bedeincatuten zaitudaz, Cristo, ceure curutze santiaren bidez salbau cendubalaco munduba.



# Cristinaubaren obligacino,

## TA DOCTRINAREN ESPLICACINUA.

I. Cein da cristinaubaren lenengo obligacinua?
E. Irabaztia gueure azquena, ceñetaraco eguinac izan guinian.
I. Cein da bada gure azquena, edo certaraco eguin eban Jaungoicuac guizona?
E. Bera ametaco ta servietaco mundu onetan eta guero gocetaco ceruban.
I. Cermodutan servietan da Jaungoicua?
E. Fede, Esperantza ta Caridadeco actuac eguiñagaz.
I. Cer da Fedia?
E. Ezdacuzguna sinistutia, Jaungoicuac alanche aguertu izan dabelaco.
I. Cer da Esperanzia?
E. Icharotia glorija, Jaungoicuaren laguntasuna ta gueure obra onac dirala bitarte.
I. Cer da Caridadia?
E. Ametia Jaungoicua gauza guztijen ganian, ta progimua gueure buruba leguez.
I. Cer obligacino guejago dauco cristinaubac?
E. Yaquin ta aitu biar dau doctrina cristinaubarena.
I. Cer da doctrina cristinaubarena?
E. Jesucristo gure Jaunac ichi ta iracatsi

euzeuzan misterijo andijac, eracusteco guri ceruraco bidia.

I. Orrelan ¿ceimbat dira cristinaubac, errazoiagaz valijetara eldu deitenian jaquin biar dituzan gauzac?

E. Lau, Jauna.

I. Ceintzuc dira?

E. Lenengua, cer sinistu biar daben. Bigarrena, cer escatu biar daben. Irugarrena, cer eguin biar daben. Laugarrena, cer artu biar daben.

# LENENGO PARTIA.

I. Lenengo ¿celan jaquingo dau cer sinistu biar daben?
E. Jaquinagaz credua ta fedeco articulubac.
I. Noc esan eban credua?
E. Apostolubac.
I. Certaraco?
E. Guri fedeco gauzac iracasteco.
I. Eta zuc cetaraco esaten dozu?
E. Cristinauboc daucagun fedia aguertuteco
I. Cer ¿ain dira eguijac fediac iracasten descuzan gauzac?
E. Bai, Jauna, Jaungoicuac esanico eguijac leguez.
I. Jaungoicua ecin engañau leiteque?
E. Ez, Jauna, cergaitic dan guztiz jaquituna; eztu inor engañau bere guztiz arteza ta ona dalaco.
I. Nundic daquizu bada diriala Jaungoicuac esanicuac?
E. Gueure Eleisa Ama santiagandic, cein daguan Espiritu-Santubac arguituña.
I. Cer ¿ain da biarra fedia?
E. Aimbesteraño ce fede bagaric ecin iñor salbau leiteque.
I. Eta fediagaz bacarric salbauco da?
E. Ez, Jauna, caridadeco eguiquera onac lagunduten ez badeutse.
I. Eta certzuc dira Eleisa Ama santiagaz batera zuc sinistuten dozuzan gauzac?

E. Fedeco articulubac creduan dagozan leguez.

I. Beraz creduа ta articulubac gauza bat dira?

E. Bai, Jauna, cergaitic bijetan iracasten jacuzan Jaungoicuaren, ta Jesucristo gure salbaguiliaren ganeco misterijuac.

## Fedeco articuluben esplicacinua.

**Jaungoicotasunari jagocazanac dira oneec. Lenengua, sinistu Jaungoico guztiа aldaben bategan.**

I. Cer da Jaungoicua?

E. Jaungoicua da gorpuz bagaco espiritu uts bat, baya esan ta pensau leitequien baño miragarrijagua: Jaun bat ecin gueijaguan ona, perfeccino guztijen jaubia, eta gauza guztijen asijera ta azquena.

I. Nun dago Jaungoicua?

E. Lecu guztijetan nai dala ceruban nai lurrian.

I. Celan da guztia aldabena?

E. Bere altasunganaz bacarric eguiten dabelaco gura daben guztija.

I. Ceimbat Jaungoico dira?

E. Bat, Jauna.

I. Ceimbat persona?

E. Iru, Jauna.

I. Celan deriche?

E. Aita, Semia ta Espiritu-Santuba.
I. Dira iru personac iru Jaungoico?
E. Ez, Jauna, ezpada Jaungoico eguijazco bacarbat.
I. Aita semia da?
E. Ez, Jauna.
I. Espiritu-Santuba Aita edo Semia da?
E. Ez, Jauna.
I. Cergaitic?
E. Cergaitic dirian iru personac banango edo distintac, izan arren Jaungoico egui jazco bacar bat.

*Bigarrena, sinistu dala Aita.*

I. Aita Jaungoicua da?
E. Bai, Jauna.
I. Aitac nogandic dau izatia?
E. Iñogandic bere, ez, beragandic ezpada.

*Irugarrena, sinistu dala semia.*

I. Semia Jaungoicua da?
E. Bai, Jauna.
I. Semiac nogandic dau izatia?
E. Aitagandic, Jauna.

*Laugarrena, sinistu dala Espiritu-Santuba.*

I. Espiritu-Santuba Jaungoicua da?
E. Bai, Jauna.
I. Espiritu-Santubac nogandic dau izatia?
E. Aitagandic, ta Semiagandic, Jauna.

I. Eta iru personeatic ceiñ da gaztiago, zarrago edo lenago?
E. Iruren artian ez dago zarragoric, ez gaztiagoric, ez lenagoric, irurac dira bardiñac gauza guztijetan.

*Bostgarrena, sinistu dala Eguillia.*

I. Celan da Jaungoicua Eguillia?
E. Eguin cituzalaco ecerecetic ceruba, lurra, ta euretan dagozan gauza guztijac.

*Seigarrena, sinistu dala salbaguillia.*

I. Celan da Jaungoicua Salbaguillia?
E. Emoten dabelaco gracija, ta pareatuten dituzalaco pecatubac.
I. Cer da gracija?
E. Da izate Jaungoicozco bat, ceñec eguiten duben guizona Jaungoicuaren Seme ta ceruco herederu.
I. Cergaitic emoten dau Jaungoicuac gracija?
E. Bere ontasun neurri baguiagaitic, ta Cristoren merecimentubac gaitic.
I. Eta celan alcancetan da gracija?
E. Oracinuagaz, Sacramentubacaz, ta birtutezco eguiquera edo obracaz.

*Zazpigarrena sinistu dala Glorija emollia.*

I. Celan da Jaungoicua Glorija emollia?
E. Emoten deutselaco Glorija bere gracijan ilten diriana.

I. Ceimbat Eguille dira?
E. Bat, Jauna.
I. Ceimbat Salbaguille dira?
E. Bat, Jauna.
I. Ceimbat Glorija emolle dira?
E. Bat Jauna; Eguilla bat, Salbaguilla bat, ta Glorija emolla bat.

---

Guizontasun santubari jagocazanac dira oneec:

Lenengua, sinistu Jesucristo gure Jauna guizon dan aldeti sortu zala Espiritu-Santubaren obraz ta gracijaz.

---

I. Nun sortu edo guizon eguin zan Jesucristo gure Jauna?
E. Marija Virginiaren sabel santuban Jauna.
I. Trinidadeco iru personetatic cein eguin zan guizon?
E. Bigarrena, Jauna, cein dan Semia, ceini eguinic guizon derichon Jesucristo Jaungoico ta guizon eguijazcua.
I. Eta Aita, ta Espiritu-Santuba eguin ciran guizon?
E. Ez, Jauna, semia bacarric ezpada.
I. Celan da Jesucristo Jaungoicua?
E. Dalaco Aita Jaungoicuaren Semia.
I. Celan da guizon?
E. Cergaitic dan baita bere Ama Virginiaren seme benetacua.

I. Eta nosic onacua da Jesucristo?
E. Jaungoico dan aldetic beticua bere aita leguez; baya guizon dan aldetic Ama Virginiaren sabelian sortu zanetic onacua.
I. Celan sortu san Virgina Marijaren sabel santuban?
E. Ez guizonaren obraz, eta bai Espiritu-Santu Jaungoicuaren eguiqueraz ta graeijaz.
I. Ceimbat gauza eguin cirian Encarnacinoco misterijo onetan?
E. Lau gauza, Jauna, ta laurac eguin cirian instanto baten.
I. Ceintzuc dira?
E. Lenengua, Espiritu-Santubac eguin eban Virgina Marijaren odol garbijagaz gorputz bat.
Bigarrena, eguin eban ecerecetic arima bat.
Irugarrena, gorpuz ta arima oneec alcarganatu cirian.
Laugarrena, Trinidadeco bigarren persona euracaz bat eguin zan, gueratuten zala onelan, len Jaungoico bacarric zana, Jaungoico ta guizon eguinda.
I. Ceimbat izate edo naturaleza, entendimentu, ta borondate dagoz Cristogan?
E. Bi, batzubac Jaungoico dan aldetic, ta bestiac guizon dan aldetic.
I. Ceimbat persona?
E. Bat bacarric, ta berau Jaungoco dan aldetic.

I. Eta ceimbat memorija daucaz Jesucristoc?

E. Bat guizon dan aldetic, cergaitic ece Jaungoico dan aldez gauza guztijac daucaz aurrian.

---

Bigarrena, sinistu jayo zala Marija Virginiagandic izanic doncella, Semia jayo baño lenago, jayaqueran ta jayo ezquero.

---

I. Badauco Jesucristoc guizon dan aldez Aitaric?

E. Ez, Jauna, ezpada ama, cein dan Marija guztiz santia.

I. Badauco Jesucristoc Jaungoico dan aldez amaric?

E. Ez, Jauna, ezpada Aita, cein dan Aita Beticua.

---

Irugarrena, sinistu artu ebala pasinua ta erijotzia gu pecatarijoc salbetiarren.

---

I. Nun artu eban pasinua ta erijotzia?

E. Curutze santuban Jauna.

I. Ill zan Jesucristo Jaungoico zan aldez?

E. Ez, Jauna, ezpada guizon zan partez.

I. Eta cergaitic gura izan eban Jesucristoc eguin guizon ta ill curutzian?

E. Gu pecatutic, ta betico erijotzatic atera ta salbetiarren.

---

Laugarrena, sinistu jatsi zalą infernubetara, eta atera cituzala bere etorrera santubaren beguira egozan Guraso santuben arimac.

---

I. Cein infernutara jatsi zan il ezquero Jesucristo?
E. Ez condenaubac juaten dirian infernura ezpada Limbora, nun egozan Guraso santuben arimac.
I. Bere arimia ala gorputza jatzizan Limbora?
E. Arimia, Jauna, bere Jaungoicotasunagaz bat eguinda.
I. Nun gueratu zan bere gorputza?
E. Sepulturan, Jauna, bere Jaungoicotasunagaz baturic.

---

Bostgarrena, sinistu viztu zala irugarren egunian illen artetic.

I. Celan viztuzan Jesucristo gure Jauna?
E. Biurtuten zala barriro bere arima santia bere gorputzera, ez gueijago ilteco.

Seigarrena, sinistu igo ebala Cerubetara ta an daguala jarriric Aita Jaungoico guztiz poderosuaren alde escumacuan.

---

I. Celan igo eban Jesucristo gure Jaunac cerubetara?

E. Bere indarrez edo virtutez, Jauna.
I. Eta cergaitic esaten da daguala jarriric Aita Jaungoico guztiz poderosuaren alde escumacuan?
E. Jaungoico dan aldetic daucalaco glorija bardina Aitagaz, ta Espiritu-Santubagaz, eta guizon dan aldez beste criatura guztijac baño gueijago.

---

Zazpigarrena, sinistu etorrico dala juicijoco egunian juzguetara au da emotera onai bere glorija gorde citubezalaco bere mandamentu santubac, ta gaiztuai betico penia etzitubezalaco gorde.

---

I. Jueijoco egunian guztijoc viztuco gara?
E. Bai, Jauna, orainche daucaguzan gorpuz ta arimacaz.
I. Cetaraco viztuco gara egun atan?
E. Contu emoteco, Jauna Jaungoicuari, pensau, esan ta eguin doguzan gauza guztijen ganian.
I. Onezaz ganetic ¿cer sinistu biar da?
E. Creduan dagozan gauza bi, ceintzuc dirian daguala Eleisa santa catoliquia ta santuben comonimua.
I. Cer da Eleisa santia?
E. Cristinau fededun guztijen batzar edo gorputz bat, ceñen buru dan Ceruban Jesucristo, eta lurrian bere ordezeo leguez Aita santu Erromacua.

I. Eta cer esan gura dau Santuben comunionuac?

E. Cristinau fededun guztijac dauquela parte batac bestien arimaco ondasun, edo obra on guztijetan gorpuz bateco zatijac leguez, cein dan Eleisia.

I. Credo ta articulubez ostian besteric sinistuten dozu?

E. Bai, Jauna, Escritura Sagraduan daguan, ta Jaungoicuac Eleisa Santiari aguertu deutsan guztijan.



# BIGARREN PARTIA.

I. Celan jaquingo dan cristinaubac cer escatu biar daben?
E. Jaquinagaz Aita guria ta Eleisaco oracinuac.
I. Noc esan eban Aita guria?
E. Jesucristoc, Apostolubac escatuta.
I. Certarako?
E. Guri oracino eguiten iracasteco.
I. Cer da oraciño eguitia?
E. Jaungoicuagana vijotza jaso ta mesediac escatutia.
I. Ceimbat modutacua da oracínua?
E. Bitacua, goguagazcua ta aungazcua.
I. Cein da oracinó goguagazcua?
E. Entendimentubagaz ta borondatiagaz eguiten dana berba bagaric.
I. Cein da añagazco oracinua?
E. Berbas eguiten dana, Aita guria esaten dogunian leguez.
I. Eta Aita guria esaten dozunian ¿nogaz eguiten dozu berba?
E. Gure Jaun ta Jaungoicuagaz.
I. Eta nun dago Jesucristo?
E. Jaungoico dan aldetic lecu guztijetan, ta guizon dan partez bacarric Ceruban ta Sacramentu Santu altaracuan.

## Aita Guriaren esplicacinua.

I. Cein da oracino guztijetatic onena?
E. Aita guria.
I. Cergaitic?
E. Cergaitic esan eban Jesucristoc bere aotic.
I. Cergaitic gueijago?
E. Daucazalaco zazpi escabide caridadetic datozanac.
I. Ta cergaitic asten zara esanagaz *Aita guria Cerubetan zagozana?*
E. Jaungoicuagana vijotza jaso, ta humiltasun eta confianza andibategaz mesediac escatuteco.

Lenengo escabidia da—*Santificadu bedi zure icena.*

I. Cer escatuten dozu escabide onetan?
E. Jaungoicuaren icena izan dedilla ezagutuba ta amaduba mundu güztijan.

*Bigarrena, betor gugana ceure Erreinuba.*

I. Cer escatuten dozu escabide onetan?
E. Aguindu daguijala Jaungoicuac gure arimetan, emen lurrian gracijaren bidez, ta emon daguigula guero glorija.

*Irugarrena, eguin bedi zure borondatia celan Ceruban alan lurrian.*

I. Cer escatuten dozu escabide onetan?

E. Eguin daiguila Jaungoicuaren borondatia lurrian vici garianoc, Ceruban dagozanac eguiten daben leguez.

*Laugarrena, gueure ogui egunian eguniangua gaur emon eguiguzu.*

I. Cer escatuten dozu escabide onetan?
E. Emon daguigula Jaungoicuac gorputzeraco oguija, ta arimaco gracija ta Sacramentubac.

*Bosigarrena, eta parcatu eguiguzuz gueure zorrac gueuc gueure zordunai parquetan deutseguzan leguez.*

I. Cer escatuten dozu escabide onetan?
E. Parcatu daguiguzala Jaungoicuac gueure pecatubac, cclan gueuc parcatuten deutsegun gach eguin deuscubenai.

*Seigarrena, ez eguiguzu ichi jausten tentacinuan.*

I. Cer escatuten dozu escabide onetan?
E. Ez daguigula ichi Jaungoicuac jausten tentacinuan, ez lecuric emoten pensamentu deungai, ceintzucaz jausi eraguin gura leusquegun demoninuac pecatuban.

*Zazpigarrena, baya librau gaguizuz gachetic.*

I. Cer escatuten dozu escabide onetan?
E. Librau gaguizala Jaungoicuac gach, eta

peligru guztijetatic, alan arimacuetatic cein gorputzecuetatic.

I. Azquenian ezaten dozun berbiac? *Amen*. Cer esan gura dan?

E. Alan izan dedila.

I. Ceintzuc dira beste jaquin biar dirian oraciñuac?

E. Ave Marija eta salvia erregututeco Virgiña gustiz santiari, ta mesediac escatuteco.

I. Noc esan eban Ave Marija?

E. Angueru San Gabrielec, Ama Virginiari barri onac emotera etorri zanian.

I. Noc esan eban salvia?

E. Eleisa Ama Santiac dauco beretuta.

I. Ave Marija ta Salvia esaten dirianian ¿nogaz eguiten da berba?

E. Virgiña guztiz santiagaz.

I. Nor da Virginia guztiz santia?

E. Da Jaungoicuaren Ama, gracijaz ta virtutez betia; eta Ceruco Erreguiña.

I. Eta altaretan daguana nor da?

E. Ceruban daguanaren imagina edo irudi bat.

I. Eta cetaraco ipinten da imagina au altaretan ta echeetan?

E. Bere bidez gomutau gaitezan Ceruban daguanagaz, eta bere irudija dan aldez emon daguijogun zor jacan onria.

*Burdiñ esan biar da Anguern ta beste Santuben imaginaegaitic.*



# IRUGARREN PARTIA.

I. Celan jaquingo dau cristinaubac cer eguin biar daben?

E. Jaquinagaz Jaungoicuaren legueco mandamentubac, bost Eleisacuac ta obra misericordijazcuac.

## Amar mandamentuben esplicacinua.

Lenengua, Jaungoicua ametia gauza guztijen ganian.

I. Noc ametan dau Jaungoicua?
E. Bere mandamentubac gordetan dituzanac.
I. Cer da Jaungoicua ametia gauza guztijen ganian?
E. Gurago izatia gauza guztijac galdu bera ofendidu baño.
I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?
E. Jaungoicua ametan ez dabenac, beragan sinistu gura ez dabenac, Jaungoico guzurrezcuai sinistia emoten deutsanac, ta sorguinquerija ta echizerijetan dabilenac.

Bigarrena, juramentu alperric ez eguitia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?
E. Jaungoicua testigutzat dacarrenac eguija baga, justicija baga ta premina baga.

Irugarrena, domecac ta jaijac gordetia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?
E. Meza osua domequetan ta jaijetan ent-

suten ez dabenac, ta premina baga biarra eguiten dabenac.

Laugarrena, Aita ta ama onretia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?

E. Gurasuen aguinduba eguin gura ez dabenac, lotsia gordetan ez deutsenac, ta euren preminetan laguntuten ez deutsenac.

I. Nortzuc besteric aituten dira gurasuaren icenagaz?

E. Nagusijaguac edadian, ta dinatasunian.

Bostgarrena, ez iñor illtia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?

E. Proginuari gach eguiten deutsanac berbaz, obraz edo gurariz.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?

E. Garbija ez danac pensamentu, berba ta eguiqueretan.

Zazpigarrena, ez iñori ecer ostutia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?

E. Bestiari cerbait quendu edo bere onda-

simetan calteren bat eguiten deutsanac, edo eguin gura leusquijonac ta gauza ostuba estalduten dabenac.

Zortzigarrena, falso testimoniñoric ez iñori ezartia, ta guzurric ez esatia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?

E. Onra edo eleituba progimuari quenduten deutsanac, bere falta issilecua aguertuten dabenac, ta guzurra esaten dabenac.

Bederatzigarrena, iñoren senarric edo emazteric ez gura izatia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?

E. Gurari loijac daucazanac besteren senar edo emaztiagaz.

Amargarrena, bestien ondasunic ez desietia.

I. Noc eguiten dau pecatu mandamentu onen contra?

E. Gura leuquianac inoren haciendia bide charretic, eta contentu ez danac Jaungoicuac emoten deutsanagaz.

## Bost mandamentuben esplicacinua.

Lenengua, meza osua entzutia domequetan ta jaiyetan.

I. Cer da mezia?

E. Jesucristo gure Jaunaren vizitza, pasino ta eriotziaren gomuta bat.

I. Celan entsun biar da mezia?

E. Atencino ta debocino andijagaz.

I. Eta nortzuc dauque obligacinua mezia entzuteco?

E. Errazoingaz valijetara eldu dirian cristinau guztijac.

Bigarrena, confesetia guichienez urtian bein, edo lenago erijotzaco peligruric badago, edo comulgauco bada.

I. Cer da confesetia?

E. Pecatu mortal guztijac confesoriari aguertutia, bat bere ichi baga, vijotzeco damutasunagaz, eta ez gueijago eguiteco gogo sendo bategaz.

Irugarrena, comulguetia Pasco garizumacuetan.

I. Nortzuc dagoz obligauta urtian bein confesetara, ta Pasco garizumacuetan comulguetara?

E. Errazoiagaz valijetara eldu dirian cristinau guztijac.

I. Eta deungaro confesaubagaz, ta comulgaubagaz betetan dabe obligacino au?

E. Ez, Jauna, ta eguiten dituben ganera pecatu mortal bi.

I. Eta ilteco peligruban confesore baga aurquituten danac ¿cer eguin biar dau?

E. Acto contricinozco bat, bere demporan confesetaco intencinuagaz.

Laugarrena, barau eguitia Ama Eleisa santiac aguinduten dabenian.

I. Noritzuc dauque obligacinua barau egui-teco?

E. Oguei ta bat urte igaro jaquezanac, beintzat iruroguei urterano.

I. Eta ceintzuc ez dauque obligacino au?

E. Gueisoric dagozanac ta biar gogorretan dabiltzanac.

I. Barau eguiteco aguinduac ¿ze egunetan biartu edo obliguetan dau?

E. Garizumaco egun guztietan, domeciac apartauta; urteco lau demporetaco iru egunetan, au da, eguaztenian, baricuan ta zapatuan; abenduco barieu ta zapatue-tan, onezaz ganetic Gabon egunian, Mu-yatz Pasco besperan, San Pedroren bes-peran, Santiagorenian, Andra Marija Agostucoarenian eta Santu guztijene-cuan.

I. Ta ogueta bat urte ez dauquezanac, ¿ba-dauque eguiinpide edo obligaciñoren bat barau egunetan?

E. Bai, Jauna. Bulda bagaric eziñ jan leije oquelaric; ta barriz garizuman ez oque-laric, ez oquelatic datorren gauzaric, au da, ez arrautzaric ez esne gauzaric.

I. Barau egunetatic gañera, ¿badago beste egunic oquelia jan eziñ leiquianic?

E. Bai, Jauna, Bulda bagaric eziñ jan lei-que oquelaric garizumaco domequetan, ta urteco barieuetan.

I. Españatarrai, ¿autortu deuzeu Aita San-

tuae grazijaren bat jateco barau egunetan oquelia, ta garizuman arrautza ta esne gauzac?

E. Bai, Jauna; Curutzeco ta oquelaco Bulden bitartez; baña Bulda santu onec artu arren, eziñ nastau gueinquez barau egunetan oquelia ta arraiña, ez da garizumaco domequetan bere; eta ezin jan gueinque oquelaric autzen egunian, garizumaco baricuetan, aste santuco asquenengo lau egunetan, Mayatz Pasco besperan; San Pedroren besperan, Andra Marija Agostucoarenian, eta Gabon egunian.

I. Bigilija ta barau egunetan oquelia eta arraña ez nastetaco aguinduac betetan ez dituzanac, ¿ze pecatu eguiten dau?

E. Pecatu astuna, eurac auzten dituzan bacochian.

I. Zetan gastetan da Bulda santuagaz artuten dan limosnia?

E. Curutzeco Buldiaren limosnia Eleisa pobrietan; barriz oquelacuarena ospital santuetan.

Bostgarrena, amarrenac ta primicijac paguetia.

I. Celan pagau biar dira amarrenac ta primicijac?

E. Artuten dan moduban, onetic ona, ta ona ez danetic berari jatorcana.

# Obra Misericordijazcuac.

**Dira amalau, zazpi arimiari, ta beste zazpi gorputzari jagocazanac.**

*Arimiari jagocazanac dira oneer.*

Lenengua, ez daquijanari iracastia.
Bigarrena, biar dabenari conseju ona emotia.
Irugarrena, oquer dabillena zuzendutia.
Laugarrena, deungaro eguina parcatutia.
Bostgarrena, triste daguana poztutia.
Seigarrena, lagunaren uts-eguite, ta argaltasunac pacienciijagaz eruatia.
Zazpigarrena, vicijac ta illacgaitic Jaungoicuari erregututia.

*Corputzari jagocazanac dira oneec.*

Lenengua, gucisuac icusi edo visitetia.
Bigarrena, gose danari jaten emotia.
Irugarrena, egarri danari edaten emotia.
Laugarrena, catigu dagozanac ascatutia.
Bosigarrena, billosic dagozanac jantzitia.
Seigarrena, erromesai ostatuba emotia.
Zazpigarrena, illac lurpetutia.
I. Cergaitic esaten jaque obra misericordijazcuac?
E. Ez dirialaco beti juzticijaz zor diriana.
I. Nos dira bada juzticijazcuac?
E. Guizon ituben erechijan premina edo estu aldi andija danian.



# LAUGARREN PARTIA.

I. Celan jaquingo dau cristinaubac cer artu biar daben?
E. Jaquinagaz Eleisaco sacramentubac.
I. Certzut dira sacramentubac?
E. Dira señale aguiri batzuc Jesucristo gure Jaunac ipiñijac euren bidez emoteco guri bere gracija ta virtutiac.

## Sacramentuben esplicacinua.

*Lenengua, Bautismua.*

I. Cer da sacramentu Bautismo cua?
E. Da quenduten dabena pecatu originala ta bauticcetan danagan aurquituten dan beste edocein.
I. Cer da pecatu originala?
E. Da jaijotzatic dacurgun, ta gueure lenengo guraso Adan ta Evagandic heredau dogun pecatuba.
I. Nundic sartuten da Eleisara?
E. Bautismo santutic.
I. Eta badago ceruric bautizau bagaric illten dirianentzat?
E. Ez, moduren baten bautizau baga.
I. Bada nora duaz bautizau bagaric illten dirian seinchubac?
E. Limbora ceñetan dauquen Jaungoicuaren arpeguija ecin icusijac emoten daben penia.
I. Eta celan bautizauco da seña dempora bagacua danian, edo ilteco peligruban daguanian?
E. Ura botiagaz edoceñec, aldala burura, ta batera esanagaz bautizetaco intencinuagaz—*Nic bautizetan zaitudaz Aitiaren, ta Semiaren ta Espiritu-Santubaren icenian. Amen.*

*Bigarrena, Confirmacinua.*

I. Cer da sacramentu Confirmacinocua?
E. Da emoten deuscuna indarra bautismuan artu guenduban fedien sendo irauteco.

*Irugarrena, Penitencija.*

I. Cer da sacramentu Penitencijacua?
E. Da parcatuten dituzana bautizau ezquero eguin dirian pecatu guztijac, alan mortalac celan venialac.
I. Cer da pecatu mortala?
E. Da, esatia, eguitia edo pensetia cerbait Jaungoicuaren leguiaren contra gauza astunian.
I. Cergaitic dericho mortala?
E. Illten dabelaco eguiten dabenaren arimaco gracija.
I. Eta nos artuten dogu sacramentu Penitencijacua?
E. Ondo confesau ta artuten dogunian absolucinua.
I. Cer da pecatu veniala?
E. Da esatia, eguitia edo pensetia cerbait Jaungoicuaren leguiaren contra gauza arinian, eta laster parcatuten dana.

*Laugarrena, Comunimua.*

I. Cer da sacramentu Comunimocua?
E. Da, biar dan prestaeriagaz artu ezquero,

emoten dabena arimaco jatecua ta guei-
tu gracija ta virtututiac.

I. Cergaitic dinozu biar dan prestaeriagaz artu ezquero?

